

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE ORDAINITZAILEAK IRUZURRAREN **AURKA BORROKATZEKO DUEN KONPROMISOAREN ADIERAZPENA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak iruzurraren aurrean zero tolerantzia politikarekin jarraitzen du; eta, horregatik, bere lehentasunetako bat izaten jarraitzen du, bere eskumenen esparruan, iruzurraren aurkako politika sendotzen jarraitzea bere eginkizunak betetzean. Adierazpen honen bidez, erakunde ordaintzaileak adierazi nahi du konpromisoa hartzen duela arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar gorenekin; eta integritate, objektibotasun eta zintzotasun printzipioei atxikitzen zaiela. Hartara, harekin harremana duten eragile guztiek eta herritarrek iruzurraren eta edozein eratako ustelkeriaren aurkakokotzat har dezakete haren jardura.

Erakunde ordaintzaileak iruzurraren aurkako borrokan hartzen dituen erantzukizunen artean honakoak daude:

- Iruzurraren aurka borrokatzeko politika eraginkorra eta iruzurraren aurka erantzuteko plana ezartzea.
- Langileak iruzurrarekin lotutako gaiez jabetzen direla ziurtatzea, bai eta horri buruzko prestakuntza jasotzen dutela ere.
- Erakunde ordaintzaileak iruzur-kasuak jakinarazteko prozedurak dituela bermatzea.
- Iruzur-kasuak gertatzen direnean, ikerketak erakunde eskudunei bidaltzen zaizkiela ziurtatzea.

Era berean, honako erantzukizun hauek esleitzen zaizkie laguntzak kudeatzeko unitateei:

- Beren erantzukizunaren esparruan barne-kontrolerako sistema eraginkorra dagoela ziurtatzea.
- Iruzurra prebenitzea eta detektatzea.
- Iruzurraren susmoa izanez gero, behar den arreta egiten dela eta kautelazko neurriak hartzen direla ziurtatzea.
- Neurri zuzentzaileak hartzea, administrazio-zehapenak barne, hala badagokio.

Hartutako konpromisoari erantzuteko, erakunde ordaintzaileak iruzurraren aurkako neurri proportzionatuak jarri ditu abian, kudeatzen duen laguntza-lerro bakoitzeko arriskuaren ebaluazioan oinarrituta, Europako Batzordeak EGESIF 14-0021-00 dokumentuan (*"Iruzur-arriskuaren ebaluazioa eta iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak"*) proposatutako tresna erreferentziatzat hartuta.



Halaber, Batzordeak iruzurraren aurka hartutako konpromisoak adierazten duenez, Europako Funtsen kudeaketan esku hartzen duten eragile guztiek (besteak beste, laguntzen onuradunek) iruzurraren aurrean zero tolerantzia izateko konpromisoa hartu behar dute; eta salaketa-postontzi bat jarri da esku-hartzaileen eta herritarren eskura, erakunde ordaintzaileari antzeman daitezkeen irregulartasun edo iruzur-susmoen berri emateko. Horrela, Europako NBEF eta LGENF funtsekin zerikusia duten programak gauzatzean iruzurra egon daitekeela susmatzen duen edonork salaketa aurkeztu ahal izango du iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoan (OLAF) ez ezik, erakunde ordaintzailean bertan ere; eta, nolana ere, informazioa konfidentzialtasun osoz eta gai hori arautzen duten arauen arabera tratatzen dela bermatuko da.

Era berean, erakunde ordaintzaileak, bere zerbitzura dauden langileak iruzurraren aurkako borrokarekin konprometitu daudela bermatzeko, Interes Gatazkarik ezaren Adierazpena ezarri du. Adierazpen horren bidez, NBEF eta LGENF funtsetatik datozen laguntzei lotutako eragileen inplikazio osoa erakutsi nahi da. Era berean, erakundeak konpromisoa hartu du bere taldeari iruzur-kasuak prebenitzen eta detektatzen laguntzeko behar duen prestakuntza emateko.

Ondorioz, adierazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak adierazi eta jasota utzi nahi du iruzurrezko edozein ekintza erabat arbuiatzen duela eta konpromisoa hartzen duela bere eskumenen esparruan edozein delitu-egintza jazartzeko; eta iruzurraren aurkako borroka sustatzen jarraitzeko prest dagoela, baliabide publikoen kudeaketan eraginkortasuna bultzatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 1a

Jorge Garbisu Buesa

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileko zuzendaria

